



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-01-13**

VIII.URTEA 1.901.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

Peio Olanok Guardia Zibilak «modu basatian torturatu» duela salatu du

LIZARTZA «Lehen bi egunetan eguneko 7edo 8 galdeketa» egin dizkiote eta «kolpeak eta mehatxuak» jasan ditu

EPAIKETA Jose Maria Aznarren aurka hiru aldiz atentatu egiten saiatu izana egotzi dio Grande-Marlasca epaileak s



Juan Mari Barriola Udal zinegotzia, udaletxeko artxiboaren inguruko argibideak ematen. A. IMAZ

ZAHARBERRITZE LANAK NAGUSI 2010EAN ERE

LEITZA Lau gaien inguruan aritu dira Udal ordezkariak; artxibo historikoak, E Plana, Plazaola eta Guardia Zibilaren afera. 7

ETAk kazetaren proiektuaz ez zuela hitz egin dio 'Txelis'-ek

'EGUNKARIA AUZIA' Guardia zibilek atxiloteta garaian dena «normal» joan zela esan dute 2

I. Antton Pebet Memoriala ezin hobeto atera dela diote antolatzaileek

VILLABONA Txapelketa urte amaieran berriz ere antolatzea adostu dute 4



Armoi gailurrean ur biltegia egiten hasi dira. E. MAIZ


Ur sarea eta bideak konpontzen hasi dira hainbat herritan

AZPIEGITURAK Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreikusitako laguntzekin egingo dituzte lanak 4

PATXI ZEBERIO ERREMONTISTA

«Urriza-Lizaso bikote sendoa da, aurkari gogorak izango dira»

ELDUAIN Larunbatean jokatu du elduaindarrak Tejados Aoiz Txapelketako finala Hernanin 6



Pasa den abenduan hasi zen 'Egunkaria auziko' epaiketa; atzokoaren ondotik hilaren 25ean jarraituko du epaiketak. HITZA

Guardia zibilek ez dute frogarik aurkeztu

'Egunkaria auzia' » Atzoko saioaren ondotik epaiketak hilaren 25ean jarraituko du; epaimahaia hilaren 27an irakurri nahi ditu ondorioak.

ERREDAKZIOA

10:38an hasi zen atzo *Egunkaria*-ren epaiketako bigarren saioa, aurreikusitakoa baino ia 40 minutu beranduago, eta 12:33an amaitu zen. Fiskalak, epaiketako lehen bi saioetan bezala, ez zuen galderarik egin eta guardia zibilek, euren aldetik, bost auzipetuen atxiloketa garaian dena «normal» joan zela esan zuten, hauek, tartean Martxelot Otamendi tolosarra, torturak salatu zituzten arren. Otamendi Madrilan izan zen atzo gauean hitzaldia emateko, *Egunkaria*-ren aldeko bertako plataformak antolatutako ekitaldian. Gaur berriz, Lizarran (Nafarroa) izango da, Musika Eskolan 20:00etan.

Horiek horrela, atzokoan guardia zibilek ez zituzten euskarazko kazetaren aurkako frogarik aurkeztu. Eurak hasi ziren deklaratzeko. Juan del Olmo Espainiako

Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz itxi zuen *Egunkaria* Guardia Zibilak, 2003ko otsailaren 20an, kazetak ETArekin zerikusia zuelakoan.

Akusazioaren eta defentsaren galderak

Akusazioetako eta defentsako abokatuak aritu ziren galderak eginen guardia zibilei.

Ondorioz, Miguel Angel Carballo fiskalak ez zuen galderarik egin, uko egin zion aukera horri. Horixe egin zuen epaiketako lehen bi saioetan ere. Hain justu, *Egunkaria*-ren aurkako frogarik ez zegoela argudiatuta, auzibidean kasua ixteko eskatu zuen fiskalak -defentsak ere bai-, baina Auzitegi Nazionalak ez zuen aintzat hartu eskaera. Atzo guardia zibil batek esan zuen kasua artxibatuta zegoela uste zuela.

Carmen Gisasola, Jose Luis Alvarez Santacristina, Txelis, eta Jose Mari Dorronsoro euskal presoek ere deklaratu zuten atzo. Txelis hasi zen, 11:40an, aitortu zuen erakunde armatuan kargu politikoa izan zuela, baina azpimarratu zuen ETAK ez zuela inoiz sustatu

egunkaririk, ez zuela esku-hartu. Hari bai, hari egin zion fiskalak galdera: ea ETAK interesik izan al zuen *Egunkaria* sortzeko. Txelisek erantzun zion «interes soziala» besterik ez zutela eduki, «euskara garatu zitekeelako» egitasmoarekin. Dorronsorok esan zuen ETAK ez zutela «bater» hitz egin *Egunkaria*-z.

Polizia iturrien arabera, *Egunkaria*-ri buruzko dokumentuak atzeman zizkieten preso haiei, atxilotu zituztenean.

Auzipetuen errugabetasuna

Hamarrak aldera, auzitegira sartzeaz zirela, Joan Mari Torrealdai auzipetuak adierazi zuenez «gaurkoaren -atzokoaren- ondoren ere *Egunkaria*-ren independentzia eta auzipetuen errugabetasuna oso agerian» geratu dira.

Bost auzipetuak pasa den abenduaren 19ko Bilboko manifestazioaren ondoren «indarberrituta» daudela esan zuen Torrealdai, «garbi geratu baitzen gure herriaren protesta *Egunkaria*-ren itxieraren aurka eta gure askatasunaren alde». Milaka lagunek hartu zuten parte mobilizazioan.

@ Irudietan. Urtea zuriz jantzita hasi dute eskualdeko herri gehienek eta seguru argazki asko atera dituzuela. Bidali argazkiak tolosadekohitza.info helbidera webgunean ikusgai jarzkeko:

www.tolosadekohitza.info



Leidorren iaizko urtarrilaren 16an eskainitako kontzertuaren irudia. I. TERRADILLOS

'Leidor Sessions' dokumentala ikusteko aukera ETB3 katean

Tolosa » Bide Ertzeanek orain urte bete Leidorren eskainitako kontzertua baliatuz egindako lana emitituko dute.

Aurretik Karlos Arancegiri, Imanol Ubedari eta Joni Ubedari egunko elkarrizketa ere emitituko dute.

Deabruak Teilatueta zuzenean

Era berean, Bide Ertzeaneko bi kidek, Imanol eta Joni Ubedak, osatzen zuten Deabruak Teilatueta taldea ikusteko azken aukeretako ere bertan da. Izan ere, denbora batez geratuko dira, bi urtez 1973 disko berriena aurkezten ibili eta gero. Haiekin batera talde berezia izango da, hau da, Colemans, Peiremans taldearen birsorkuntza, hain zuzen, non Berri Txarrakoko Gorka Urbizuk eta Bide Ertzeaneko Imanol eta Joni Ubedak eta Karlos Aranzegik jotzen duten.

1973 izeneko diskoarekin urte luzeke isilunea hautsi zuen Tolo-sako Deabruak Teilatueta euskarazko rock taldek. Disko berria eskutan Euskal Herri osoko agertokietan kantu berriak aurkezten dabilta, baita beste kantu mitiko asko ere.

ERREDAKZIOA

Bide Ertzean talde tolosarrak azaldu duenez, ETB3 telebista katean *Leidor Sessions* dokumentala eskainiko dute hilaren 16an. Leidor aretoan egindako kontzertua emitituko dute grabatu eta urtebetera, hortaz.

Izan ere, 2009ko urtarrilaren 16an talde tolosarrak 1998-2008 urteetan egindako diskoen eta kantuen errepaso egin zuen Leidorren kontzertu batean. Kantu zaharrenak boskotera birmoldatu eta abesti berriren bat entzuteko aukera izan zen bertan.

Larunbatean Betacam digital formatuan 64 minutuko dokumentua eskainiko dute, Dock Of the bay izeneko musika-zine jaialdian eskaini zutena, hain zuzen.

Desordutan taldearen kontzertua Mescalen

Tolosa » Emanaldia hilaren 29an izango da 21:30etik aurrera; datorrena Lakuntzan izango da martxoaren 5ean.

bilan banda da, «oraingo honetan horrela tokatu delako... gure doinuak ez baitira momentuko modere eraginda sortuak», diote taldekideek.

Poemak

Disko berriarekin Iñigo Aranbarri, Joan Aldamiztebarria eta Eneko Aranburu idazleen poemak musikatzeko aukera izan dute tolosarrekin.

Datorren kontzertua martxoaren 5ean eskainiko dute 22:30ean Lakuntzako (Nafarroa) Sorginak tabernan.

ERREDAKZIOA

Desordutan talde tolosarrak bere azken lana, *Eromena zor ditut...*, aurkeztuko du Tolosako Mescal tabernan hilaren 29an 21:30etik aurrera.

Desordutanek powerpop nahiz pop-rockaren bidezidorretik da-

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Duela 25 urtekoak gogoan

Kirola » 1985. urteko urtarrilean Kontxan egin zuten eski probaren inguruko ikus-entzunezkoa izango da bihar, 20:00etan.

ERREDAKZIOA

Aspaldian egin duen elurterik handiena izan da azken egunotako. 25 urte egin behar omen dugu atzera horrelako zerbait errepikatzen. Izan ere, ez da ohikoa itsasaren ondoan elurra egitea eta ondorioz hondartzak zuriturik ikustea. 1985eko urtarrilaren 15ean ere Kontxa elur geruzak estali zuten eta berezitasun horretaz baliatuz eski proba antolatu zuten. Orain, 25 urte geroago, eta beste elurte baten ostean, proba hura gogoratu nahi dute, bihar, Tolosako Kultur Etxean 20:00etatik aurrera ikusgai izango den ikus-entzunezkoarekin eta solasaldiarekin.

Garai hartan Ramon Labayan



Kontxako pasealekuan milaka lagun bildu ziren proba ikusteko. DV

tolosarra zen Donostiako alkatea eta Donostian hainbeste elur egitea «oso ez ohikoa» zela zihoen. Herri Irratiaren ekimenez antolatu zuten eski proba iratiaren uhin bidez deialdia zabalduz, eta 114 lagun animatu ziren parte hartzera. Guztira bost kilometro egin behar zituzten Kontxako pasealekuan zehazturiko ibilbidean. Helmugan lehen gizonetzkoa Angel Ortiz izan zen eta lehen emakumezkoa Tina Bilbao, tolosarrak

biak. Eskualdeko beste hainbat lagunek ere hartu zuten parte. Eta hauek guztiak ikustera milaka lagun gerturatu ziren. Tolosan ere eski proba egin zuten hurrengo egunean Euskal Herria plazan.

Bada, Donostiako eta Tolosako proba haietako irudiak ikusteko aukera izateaz gain, Angel Ortiz, Tito Caceres edota Jokin Aldazabalekin besteak beste, solasaldia izango da bihar Kultur Etxean antolaturiko emanaldian.

Oargik eta Sanblaspikok antolatuta, eski irteera datorren asteburuan

Kirola » Bareges-La Mongieko eski estaziora joango dira; 10 euro ordaindu beharko dira izena emateko.

ERREDAKZIOA

Urteko sasoi honetan zale ugari izaten duen kirola da eskia. Hori ikusirik, Oargi elkarteak eta Sanblaspiko Gazte Asanbladak eski irteera antolatu dute datorren astebururako, hilaren 23 eta 24rako. Bareges-La Mongieko estaziora joango dira, larunbatean 05:30ean aterata. 110 euroren truke autobusa, bi eguneko forfai eta gaua pentzio erdian aterpean egingo dituzte. info@oargi.org helbidean, 688 698642 zenbakian (19:00etatik aurrera) edo www.oargi.org webgunean eman ahalko daizena.

Laburrak

2010eko mendi federatu txartela egiteko aukera

MENDIA » 2010eko mendi federatu txartela egin daiteke Alpiño Uzturre eta Oargi mendi elkarteetan. Alpiño Uzturre elkartearen (Gudari 5) astelehena eta asteazkenetan 19:30etik 20:30era edo alpinouzture@hotmail.com helbidera idatziz egin ahalko da. Oargi mendi elkartearen (Santa Maria 4) astelehena, asteartean eta ostegunetan 19:00etatik 21:00etara arte edo www.oargi.org helbidean egiteko aukera dago.

Mikel Azpillagaren erakusketak Aranburun

KULTURA » Mikel Azpillaga margolari donostiarraren 2005-08 eta atzerako begirada erakusketak dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era egongo da zabalik larunbata bitarte. Erretratuak dira nagusi bilduma honetan, ezezagunak direnei eginkoak, baina berak garantzia eman nahi die.

Capsula eta Ama say taldeen kontzertuak Bonberenean

Musika » Etzi ariko da Capsula eta larunbatean Ama say; 22:30ean hasiko dira bizkaitar taldeen zuzenekoak.

ERREDAKZIOA

Bonberenean hamabigarren urteurreneko ekitaldi nagusiak abenduan izan baziren ere, urtarrilean jarraipena izan du egitarauak, eta asteburu honetan emango diote amaiera ekintza sortari. Hain zuzen ere, musika izango da protagonista, Capsula eta Ama say taldeen kontzertuekin, etzi eta larunbatean, hurrenez hurren.

Capsula ostiralean 22:30ean igoko da taula gainera. Gaur egun gurean dagoen rock talderik indartsuena bezala definitzen dute, beraien ospea nazioartera ere zabalitzen delarik.

Bilbon finkatuta dagoen taldeak Europa, Canada eta AEBetako jaialdi askotan hartu du parte. Estatu Batuetan Texas hirian ospatzen den SXSW izan da aritu diren azken jaialdia, eta bertan David Frickerek, Rolling Stone aldizkariako editoreak, hain zuzen, talderik esanguratsuen moduan aukeratu zituen.

Euren musika The Who eta Pink Floyd taldeen artean koka daiteke, Cramps edota Velvet Underground moduko taldeen artean. *Rising Mountains* (BCore) disko berriaren rock musi-



Goian, Capsula taldeko kideak. Behean, Ama say taldekoak. HITZA

kan zehar bidaia egiten dute, rocketik psikodelia doinuetera igarotzen eta garage soinuak landuz.

Larunbatean, bestalde, Ama say talde ortuellarra ariko da, 22:30etik aurrera. 90eko hamarkadan sortutako taldea da. Pixies, Sonic Youth edo Charlattans bezalako taldeetan oinarritzen da beraien musika. Bosturtetan, bi disko

eta single bat kaleratu zituzten, denak Essan Ozenki zigiluarekin. 1993an *Ikusi ditut umeak kalean ametsak akatzen* diskoa, 1994an *No Iz pop zuzeneko* CD singlea eta urte berean *Say ama* CDA.

Taldea 1997an desagertu zen, baina hamar urte eta gero, 2008ko azaroaren 14an, agertokietara itzuli ziren berriro.

Sahararrei laguntzeko janari bilketa abian da

Gizartea » Eskualdeko hainbat gunetan bilduko dituzte hilabete bukaerara arte, jakiak eta eskolako materiala.

ERREDAKZIOA


Aurten ere, abian da saharar erre-fuxiatu kanpalekuetarako elikagai eta produktu ezberdinak bidaltzeko *Piztu Itxaropena* kanpaina. Azukrea, pasta, lekaleak, atuna oliotan, sardinak oliotan, arroza, konpresak eta eskolako materiala eraman daiteke udaletxeetara, eskolara eta saltokietara.

Hilabete bukaeran amaituko da kanpaina, eta orain arte «poliki, beste urteetan baino mantoago» doala azaldu dute Tolosaldea Sahararekin elkartekoek. Horregatik herritar guztiak animatu nahi dituzte ekimenean parte hartzera.



Tolosako Eroskin ere utzi daiteke. I.T.

Bestalde, materiala eramateko bigarren eskuko kamioiak erabiltzen dituzte eta horiek erosten laguntzeko bi kontu korronte zabaldu dituzte: Kutxan 2101 0067 22 0011 80866 eta La Caixan 2100 1758 68 0200 077750.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Eskualdeko herri txikietan ur sarea eta bideak konpontzen ari dira

Azpiegiturak » Herri batzuetan bukatuta, besteetan obrak egiten edota proiektuak prestatzen ari dira.

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak herri txikiak laguntzeko emateko helburuak jarri zituen eta ondorioz, eskualdeko herri askotan horixe baliatu dute konponketak egiteko. Laguntzak ematen dituzten sailetako bi ura eta bideak dira eta hauek berriro eta egokitzeko diru kopuru bat gorde du, hain zuzen, Foru Aldundiak.

Diputatuen Kontseiluak, azken bileran, 1.800.000 euroko finantzazio gastua baimendu du, Lاندagipuzkoako 32 programan dauden Gipuzkoako udalei landa azpiegiturak, hau da, bideak eta ur hornidurak hobetzen laguntzeko.

Aurrekontuan, guztira, 3.100.000 euro izendatu dituzte landa eremuko azpiegitura horiek egiteak eskatzen dituen inbertsioak finantzatu ahal izateko. Hala eta gutiz ere, proiektu bakoitzaren arabera, Udal bakoitzak diru kopuru bat jarri behar du egin beharreko proiektua gauzatu ahal izateko.

Bideen kasuan esaterako gehienez ere kostuaren %80 laguntzen du Foru Aldundiak.



Goiazzen 652 metro tara dagoen Armoi gailurreko ur biltegia egiten hasi dira. E. MAIZ

Ura eta ur hodiak

Iturria ireki eta ura falta bada, keak seguru izan ohi dira. Baina ura etxetara iritsi ahal izateko hodiak egokia izatea behar beharrezkoa da. Herri askotan ordea, urteak dituzte herrian zehar dauden hodiak eta berriro behar aurrakitzen dira. Hoditeria zaharra izatearen beste arazoetako bat sarean ur galera handiak izaten direla izateko.

Herri txikiak, ura eta ur sarea berritzeak kostu handiak izaten ditu eta eskualdeko zenbait he-

rriko Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza hau baliatu dute horretarako.

Albizturrek 66.816,52 euro, Belauntzak 45.301,17 euro, Bidegoiak 542.670,91 euro, Elduainek 11.572,54 euro, Gazteluk 119.624,37 euro, Larraulek 236.788,58 euro, Leaburuk 37.120,00 euro eta Orexak 9.836,80 euro jasoko dituzte beraien herrietan egin beharreko azpiegiturak ordaintzeko.

Larraulen esaterako 236.788,58 euroko laguntza jaso dute eta he-

rriko alkate den Xabier Mujikak azaldu duenez, «ur depositutik hasi eta azkenengo baserrirainoko sarea berrituko dugu». Herri guztiak zati bat kenduz gero, beste guztian, urte honetan zehar sare guztia berritzea dute helburu. «Oraindik proiektu gauzatzen ari gara eta gero lehiaketara aterabehariko dugu, baina aurrean udaberri aldera hastea espero dugu», adierazi du.

Bidegoianen berriz, laguntza handia jaso dute herri guztiko ur hodiari berritzea. Udaletik ja-

kinarazi dutenez, «lau fasetan gauzatu dute proiektua eta dagoeneko lehenengoarekin hasi dira». Lehenengo zatian, Goiaztik 652 metro tara dagoen Armoi gailurreko ur biltegia egiten hasi dira.

Bitartean bigarren zatian proiektua idazten ari dira eta urte honetan zehar, lau zatitan obra guztiak bukatzea espero dute. Behin lanak bukatutakoan, herriko sare guztia berritua geratuko litzateke.

Herri bideak

Herri txikietan bide asko egon ohi dira eta horietako asko baserri bideak izaten dira. Eta sarri askotan, egoera txarrean eta berriro behar aurrakitzen dira. Urtero bezala, aurrean ere hainbat herrian herri bideak konpontzeko baliatu dute udalak Foru Aldundiak emandako laguntza.

Abaltzisketak 21.842,40 euro, Albizturrek 32.600,00 euro, Alkizak 43.708,80 euro, Altzok 84.520,38 euro, Amezketak 64.364,00 euro, Belauntzak 76.458,64 euro, Hernaldek 212.263,54 euro, Ikaztegiak 67.404,75 euro, Leaburuk 79.081,46 euro, Lizartzak 120.481,31 euro eta Orexak 53.452,80 euro jaso dituzte beraien bideak egin edo berriro ahal izateko.

Hernalden esaterako, diru asko jaso dute errepidea konpontzeko eta oraindik obrak egin ahal izateko proiektu gauzatzen ari dira. «Maioz baserriatik hasi eta Tomasena doan errepidea zabaldu eta argiztatuko dugu eta udaberri aldera edo izango da», dio Igaro Balda alkateak.

I. Antton Pebet Memoriala ezin hobeto atera da

Villabona » Jendearen erantzuna ikusita, aurrean urte amaieran berriz ere Antton Pebeten omenezko Memoriala egingo dute.

ERREDAKZIOA

Asteburuan elurra izan zen nagusi baina hala ere, zailtasunak zailtasun, Bearzana pilotalekuan ez zen, ez pilotaririk ez eta ikuslerik falta. Partidu guztiek bezala erantzun bikaina izan zuen finala eta pilotalekuan ez zen hotzik sentitu.

I. Antton Pebeten Memorialeko finalean, Euskadi Irratiko esataria den Igotz Alkorta egin zituen aurkezle lanak eta txistua joz, giroa alaitzeko lana Landa anaian esku izan zen. Bertaratuek kadete, jubeni eta nagusien mailako hiru partidu ikusi zituzten.

Lehen partiduak kadeteen mailako izan zen eta eskualdekoen arteko lehia izan zen bertan. Bi alegiar, Nazabal eta Artola, Olano aresoarria eta Tolosa anoetarraren



Bearzana pilotalekuan ikuslerik ez zen falta izan. E. EZEIZA

aurka aritu ziren. Alegiarrek eskuratu zuten txapela 22-18ko emaitza lortuz. Nazabalek aurrean Olano baino gehiago asmatu zuen eta atzeko aldean, berriz, Artolak maila txukunagoa erakutsi zuen.

Hurrengo partiduak jubenilen izan zen eta hemen ez zen kolorerik izan. 22-4ean geratu zen markagailua Loidi-Zinkunegiren alde.

Urretabizkaia ikaztegiak eta Bereziartu lazkaotarrak ezin izan zuten ezer egin.

Harrizko erlojua eta lore sorta

Bigarren partiduak amaitu ostean, finaleko unerik hunkigarria izan zen. Iñaki Lizaso, Antton Pebet angeluarraren pilota bikotea zenak eta honen oraingo bikotea den

Laurent Errekak, hil berria den Antton Pebeten gurasoei, pilotalekuan zeuden ikusleen txalo zaparradaren artean, harrizko erlojua eta lore sorta eman zizkieten. Oinkari dantza taldekoek agurra dantzatu zieten eta musika aipatu Landa anaiek jarri zuten.

Behin omenaldi xumea eginda, hirugarren eta azken partiduak jokatu zen. Aldaperekin batera, Mendizabelen tokian, hau lesionatuta zegoelako, partidu Muguruzak jokatu zuen. Nabarte goizuetarra eta Telletxea albizturtarraren aurka garaipena eskuratu zuten. 16-18ko emaitzara bitarte, Nabarte eta Telletxeak markagailua alde izan zuten, baina Muguruza eta Aldapek gogor eutsi zieten eta Telletxearen patalaldia aprobetxatu zuten markagailuari buelta eman eta garaipena etxera eramateko.

Partidu hau jokatzeko ari zen bitartean, Gopar enpresak eskainitako saski eder bat, Udairra sagardotegiaren 12 botilako kaxa eta Mikel Olazabal pilotariaren kamiseta zozketatu ziren.

» FINALEKO EMAITZAK

I. Antton Pebet Memoriala

■ **Kadeteak.** Olano-Tolosa 18, Nazabal Artola 22.

■ **Jubenilak.** Urretabizkaia-Bereziartu 4, Loidi-Zinkunegi 22.

■ **Nagusiak.** Nabarte-Telletxea 18, Muguruza-Aldape 22.

Sari banaketan Mikel Olazabal eta Oinatz Bengoetxea izan ziren Urko Martinez eta Pablo Etxeberria Behar Zana Elkarteko kideekin batera. Partidu bakoitzeko pilotaririk onenak saritu ziren eta Artola, Zinkunegi eta Aldape izan ziren sarituak. Muguruza eta Aldape txapeldunei Pebeten gurasoei jarri zizkieten txapelak eta behin argazki orokorra aterata, parte hartzaile, laguntzaile eta gonbidatuek afari ederra izan zuten Elkartearen.

Lehenengo Memoriala honek izan duen harrera ikusita, aurrean berriz ere, Gabon inguruan Antton Pebet gogoan izango duen bigarren memorialeko ospatuko dute.

Guardia Zibilak «modu basatian torturatu» duela salatu du Olanok

Lizartza » ETako kidea izatea eta Aznarren aurka hiru aldiz atentatua egiten saiatzea egotzita espetxeratu du epaileak.

ERREDAKZIOA

Pello Olanok azaldu du Guardia Zibilak «modu basatian torturatu» duela atxiloaldian, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak (AAM) atzo adierazi zuenez. AAMren arabera, Madrilera bidean kolpeak eman zizkioten Olanori eta Guardia Zibilak galdeketa ugari egin zizkion, «lehen bi egunetan zazpi edo zortzi galdeketa eguneko». Buruan hainbat aldiz jarri zioten poltsa «arnasik gabe uzteraino». «Lurrean etzanarazi eta manta batekin bildu dute, eskuak eskuburdinez lotuta zituela. Une horretan lau guardia zibil bere gainean jarri dira eta beste batek buruan poltsa jarri dio amasarik gabe uzteraino. Egocera hau askotan errepikatu da», gaineratu du. Beste hainbat tortura mota egin zizkiotela ere azaldu du AAMk: «Zutik ordu asko igarotzera behartu zuten poliziek, flexioak eginarazi zizkioten, kolpeak eman zizkioten». Mehatxuak eta presioak ere etengabe jaso zituela jakinarazi du. Besteak beste, «bere umea erabili dute presioak egiteko», gaineratu du.

Guardia Zibilaren esku bost

egun egin ditu inkomunikatuta Olanok. Ostiral goizaldean atxilotu zuten, etxean, Lizartzan. Orduan ET Arentzakoz ziren lehergai-luen garraioarekin lotura izatea egotzi zioten.

Konfiantzako abokaturik gabe deklaratu du

Atzo goizean Olanori Espainiako Auzitegi Nazionalako Fernando Grande-Marlaska epaileak galdeketa egin zion eta lizartzarra espetxeratzeak agindu zuen. «ETAko kide izatea, gerra armak edukitzea eta atentatu terroristak egiten saiatzea» egotzi diote Olanori. Guardia Zibilak bost egunetz inkomunikatuta izan ondoren, inkomunikazio egoeran deklaratu zuen lizartzarrak, konfiantzazko abokaturik gabe.

Epailearen arabera, Jose Maria Aznar Espainiako Gobernuko presidente ohiaren aurkako atentatua egiteko asmoa izan zuen Olanok 2001ean, gutxienez hiru alditan. Epaiairen autoan biltzen denez, Peio Olanok «ETArri misil jaurtitzaila uzten zion atentatu hori gauzatzeko, eta ondoren, bueltan jasotzen zuen arma». Inkomunikazio egoeran ustez egin dako deklarazioak ez zituen berretsi Olanok eta torturak salatu zituen epailearen aurrean.

AAMk hainbat galdera egin ditu «Olanoren tortura kasuen aurrean», bereziki torturaren erabilera



Herenegun iluntzean, azken bost egunetan bezala, plazan bildu ziren lizartzarrak; 200 lagun inguru elkartu ziren. HITZA

«ukatzen edo zalantzan jartzen dutenei» zuzendurik: «Nola ulertu daiteke pertsona batek bere buruaren aurka deklaratzeko, jakinik ondorioz urte luzetarako espetxeratu izan daitekeela?».

Portugalen atxilotu dituzten bi euskal herritarrek inolako deklarazio polizialik ez egitea eta Lizartzan atxilotu duten euskal herritarrek bere buruaren aurkako deklarazio polizialak egitea nola ulertu daitekeen galdetu du ere AAMk. Ildo horretatik, frantziar estatuan, Portugalen, Ingalaterran edo Alemanian euskal herritarrek atxilotuak izan direnean «polizien galdeketei ez erantzutea», eta «espainiar estatuan atxilotuak diren askok eta askok polizien galderei erantzutea, jakinik esaten dutena beraien espetxera sartzeko erabiliz izango dela» nola esplikatut daitekeen gaineratu du.

Galdera guzti horiei «erantzun logiko bat emateko bide bakarra torturaren erabilpena dela» argi

du AAMk. «Espainiar estatuak polituz eraginikortasuna jartzen du guztiaren gainetik, horretarako oinarriko giza eskubideak zapaldu behar baditu ere». AAMk dioenez, «Espainiako gobernuaren prest dago tortura erabiltzeko independentziaren aldeko lanarekin amaitzeko abian duen errepresio estrategiaren baitan».

Tortura erabiltzea «Zapateroren eta Rubalcabaren bulegoetan» erabakitzen dela dio eta gaineratu: «Erabaki politikoa da torturaren erabilpena». Torturaren aurrean «benetako jarrerak hartzeko eskakizunak» lutzatzen dute eta «torturaren amaitzeak inkomunikazioarekin amaitzea» eskatzen duela, eta horretarako «jarrera eta konpromiso argiak» behar direla.

Miaketak Lizartzako lokal batean

Pasa den ostegun gauean atxilotu zuen Peio Olanok Guardia Zibilak haren etxean bertan, Lizartzan.

ETArentzakoz ziren lehergai-luen garraioarekin lotura izatea egotzi zioten hasiera batean.

Horren harira, ustez harena den Lizartzako lokal batean miaketak egin zituzten herenegun arratsaldean, Peio Olanok bera bertan izan zelarik. Berri agentziek zabaldu zuten, 10 minutu inguru iraun zuen miaketak, eta ez zuten «ezer adierazgarririk» atzeman bertan.

Lizartzarren elkartasuna

Peio Olanok inkomunikaturik egon den bost egunetan zehar lizartzarrak elkarretaratzeak eta manifestazioak egin dituzte, euren bizilagunaren askatasuna eskatuz. Atzokoan, berriz, elkarretaratzea egin zuten egoeraren berri emateko.

Larunbatean ere manifestazioa egin zuten eta hotzari aurre eginez jende ugari elkartasuna adierazi nahi izan zion Olanori. Guztira 200 lagun inguru batu ziren herriko kale elurtuetan.

Aurtengorako zergak eta tasak ez igotzeko erabakia hartu du Udalak

Alegia » Herritarrentzat «garai xamurrak ez direla jakinda», ahal duen moduan laguntzeko ardura duela dio Udalak.

ERREDAKZIOA

Alegiako Udalak 2010erako zergak eta tasak ez igotzea erabaki du eta, beraz, 2009ko kopuruak bere horretan mantenduko dira. «Jakinda herritar askorentzat ez direla garai xamurrak, uste dugu Udalak baduela ardura egoera orokorra hobetu bitartean behintzat ahal den moduan laguntzeko», azaldu dute udal gobernatuak.

Udalak gogorarazi duenez, zerbitzu horiek orokorrean defizita-

rioak izaten jarraituko dute. Horrela, zerbitzuak eskaintzeko egiten den gastua handiagoa izango da zerga eta tasen kobratzearekin jasoko dena baino. Aldi berean ura, estolderia, zabor bilketa eta beste zerbitzuak «oinarrikoak» direla dio eta «herritar guztiak dute eskubidea horiek jasotzeko» gaineratzen du. Horregatik, «sortzen diren gastuei aurre egin beharko diegu, baina ez lehendik nahiko zulatuta dauden herritar askoren poltsikoak gehiago estutuz», zehaztu du Udalak.

Zaborra biltzeko ordutegiak

Udalak, bestealde, *Alegiako Orri* udal informazioarako argitalpenen gogorarazi ditu hondakinak ateratzeko ordutegiak. Hala, zabo-



Udaletxearen ondoan dago olio jasotzeko edukiontzietako bat. HITZA

rrei dagokionez, 20:00etatik 22:00etara atera behar dira. Zabor bilketa prozesuak behar bezala funtzionatzeko behar-beharrez-

koa dela ordutegia errespetatzea azaldu du Udalak.

Horrez gain, etxeko tresna eta altzari zaharrak ateratzeko hilean

bi aukera daudela zehaztu du. Horrelakoak ezin direla edukiontzi ondoan nahi denean edo ondo datorkionean bakoitzari. Beraz, hiler bigarren eta laugarren ostegunetan atera daitezke hondakin horiek.

Egun horietan etxeko tresnak eta altzariak ateratzetik ez duenak aukera du Tolosako San Blas auzoan dagoen garbigune berrira eramateko ere. Bi modu horiek izanik, «aitzakiarik ez dagoela» dio Udalak zaborrontzinen ingurua etxeko trastez beteta izateko.

Azkenik, olio bilketarako edukiontzi berriak jarri dituzte udalerrian. Horieta bat udaletxe ondoan dago, Larraitza auzora joateko zubia baino lehen. Orain arte asteazken goizetan egiten zen olio bilketa. Aurreantzean «erraztasun gehiago» izango direla azaldu du Udalak bi edukiontzi horiek. Olio erabili ahala botilatan jaso eta bere horretan edukiontzi berezi horietan botatzeko aukera dago.

E Elkarrizketa

PATXI ZEBERIO › Erremontista

«Lan gogorraren poderioz bizpahiru hilabetetik hona nire 'txispa' berreskuratu dut»

Elduain › Larunbat honetan Tejados Aoz Txapelketako finala jokatu du Badiola bikotearekin, Urriza-Lizasoren aurka Hernaniko Galarreta pilotalekuan 16:00etatik aurrera.

NOELIA LATABURU

Pasa den larunbatean finalerdietako hirugarren partida irabazita igaro zen Tejados Aoz Txapelketaren finalera Zeberio II.a, Badiola bikotearekin. Egun bat beranduago, igandean, jakin zuen Elduaingoak aurrez aurre nor izango ziotuen. Urriza eta Lizaso erremontistak izan ziren, hain zuzen, finalerako bigarren txartela eskuratu zutenak. Datorren larunbatean, Hernaniko Galarreta frontoiak hartuko du finala, 16:00etan hasiko den jaialdian. Finalaren atarian «lasai» azaldu da elduaindarra.

Finalerdian hiru partida jokatu behar eta azkenean finalera heldu zarete.

Bai, hasierako helburua bete dugula esango nuke. Tejados Aoz Txapelketa hasi zenean finalerdietara heldu nahi genuen Badiolak eta biok, hori zen gure lehen helburua. Behin finalerdiak gaindituta, ea suertea dugun eta gai garen finala ere irabazteko. Hori gertatzen zaigu orain.

Nola ikusten duzu zure burua une hauetan?

Berriz ere txispa berreskuratu dudala iruditzen zait. Duela 4 edo 5 hilabete kaskar ari nintzen jolastean, nerbio faltarekin-edo. Besoan ere mina nuen eta ez nuen nahi bezala egiten nire jokoa. Baina lanaren poderioz bizpahiru hilabetetik hona txispa hori berreskuratu dut. Ondo ikusten dut nire burua bai



UNAI BEROIZ

animo aldetik baita fisikoki ere, gustura ari naiz jokatzeko.

Eta zure bikotea, Badiola, nola ikusten duzu?

Badiola ere oso motibatuta dago, asentatuta ikusten dut. Urteak daramatza maila gorenean jokatzeko eta hau izango da berarentzat lehen final handia. Horrek ere moralaren ematen dio. Gainera, Galarreta pilotalekuan hobeto jokatzeko du Iruñeko kantxan baino. Gure alde izango da hau. Biok motibatuta gaude.

Zuk ere nahiago duzu Galarreta?

Bai, bai. Frontoi biziagoa da Hernanikoa, beraz pozik nago. Tekni-

koki baino indarrak jokatzeko batetik bat, hori da nire jokoa eta Galarreta egokiagoa da horretarako. Bertan sortzen den giroa ere askoz beroagoa da.

Zuek borrokatuta heldu zarete finalera, baina baita zuen aurkariak ere.

Dudarik gabe, gogorra izango da finala. Urrizak eta Lizasok oso txapelketa ona egin dute, ia guztia irabazi dute eta galdu dutena ere ozta-ozta galdu dute. Oso bikote sendoa osatzen dute eta aurkari gogorrak dira. Ondo moldatzen dira elkarrekin eta tanto bakoitza borrokatuta izango da, hori ziur.

«Urriza-Lizaso bikote sendoa osatzen dute eta aurkari gogorrak izango dira finalean»

«Badiola oso motibatuta ikusten dut; bere lehen final handia izango da eta hori nabaritzen da»

«Txapelketaren alde txarrean Altuna II.aren lesioa kokatuko nuke, pena handia izan da»

Txapela edozeinen buruan bukatu dezake, beraz.

Argi dago, bi bikoteak finalean gaude eta biok nahi dugu finala irabazi. Zaila izango da partida puskatzea, indarrak nahiko neurtuta egongo dira. Borroka orekatuta izango dela aurreikusten dut.

Bidean Altuna II.a geratu zen, lesio larri baten ondorioz.

Oso gogorra izan zen Altunaren lesioa. Pena handia da, azken urteetan joko onean zegoen-eta. Bikote oso sendoa osatzen zuen Etxeberriarekin eta faborito argiak ziren txapelketan aurrera egiteko. Baina txapelketarengatik baino pertsonalki ematen dit pena, oso lesio gogorra izan delako. Ea lehenbailehen erreuperatzen den eta laster jokatzeko dagoen berriz.

Finalaren atarian, zer balorazio egingo zenuke?

Zerbait ona aipatu behar banu, bikote bakoitzak izan duen ilusioa azpimarratuko nuke. Partida guztiak nahi dituzte irabazi, baina txapelketa honetan bereziki partida guztietan tentsio puntu hori izan da. Gogo handia jarri diogu guztiek. Alde txarra, berriz, Altunaren lesioa izan da. Erremontearantz kaltegarria izan da eta berarentzat, noski.

Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa ikaztegieta

ERREDAKZIOA

Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa bat izango da jokoan etzi Ikaztegieta Ostatuan. 22:30ean hasiko da saioa eta ordu erdi lehenago hasita izena eman daiteke. Bikote bakoitzak 20 euro jarri behar ditu horretarako.

Parte-hartzaile guztiek sari banajasoko dute eta kanporaketan garaile izaten den bikoteak beste sari bat jasoko du ere. Ostatuko kanporaketan parte hartzen duen bikote kopuruaren arabera, bikote bat edo bi sailkatuko dira aurrera egiteko Mus Txapelketan. Hala, 12 baino gutxiagok parte hartzen badute bikote bakarra sailkatuko da eta 12k edo gehiagok parte hartzen badute bi bikote sailkatuko dira.

Euskal Herriko Mus Txapelketaren finala Seguran (Gipuzkoa) jokatu da martxoaren 20an. Final handiko irabazleek lau lagunentzako astebeteko bidaiari nazioartera, txapela eta 3.000 euro jasoko dituzte.

Loatzoren eskutik, pandero ikastaroa bost hilabetez

ERREDAKZIOA

Loatzo musika eskolak pandero ikastaroa antolatu du bost hilabetez. Zehazki, hilaren 28an hasi eta ekainaren 17ra arte iraungo du. Ezinbestekoa da Loatzo musika eskola osatzen duen herritako batean erroldatua egotea ikastaroan parte hartu ahal izateko (Anoeta, Alegia, Aduna, Altzo, Ibarra, Irura, Villabona eta Zizurkil). 7 urtetik aurrerakoek parte har dezakete. Ikastaroaren prezioa 35 eurokoa da eta hilaren 14tik 25era eman daiteke izena. Loatzoko bulegoan, 943 69 26 19 telefonoan, 943 69 1995 fax zenbakian edo loatzo@udal.gipuzkoa.net helbidean.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

2010ean ere zaharberritze lanetan jarraitu nahi du Udalak

Leitza » Dagoeneko hainbat proiektu bideratuta daude, Plazaola eta artxibo historikoak horren adibide; aurrerantzean E Plana izango da helburuetako bat.

ASIER IMAZ

Leitzako Udalaren proiektuak eta kezak aztertzen hasita, iragan hurbila, orainaldia eta etorkizuna begiratu behar dira, hau da, egindako lanak, burutzen ari direnak eta airean daudenak.

Xabier Zabalo alkatearekin eta Juan Mari Barriola zinegotziarekin hitz egin ondoren, lau gai azpimarratu behar dira: artxibo historikoak, E Plana, Plazaola eta Guardia Zibilaren afera.

Herriko artxibo historikoak
Udaletxeko artxiboa berritzeko lan nagusiak amaitu dira. Udal ordezkarien esanetan «dena berritu da; apal berriak jarri dira, lekuahobeto aprobetxatu da eta kontser-



Juan Mari Barriola Udal zinegotzia, udaletxeko artxiboaren funtzionamendua eta mamia azaltzen. ASIER IMAZ

batzeko baldintza egokiagoak sortu dira».

Artxiboa beheko solairuan kokaturik dago, igogailu berriaren alboa dagoen gelan. Bertan, dokumentu historikoak aurki daitezke,

Leitzaren historia bizia. Horien artean, azken egunetan albiste izan diren lau «pergamino» azpimarratu dituzte Zabalok eta Barriolak: «Artxiboak zaharberritzeko, Nafarroako Gobernuak diru-lagun-

tza bat atera zuen, eta gu, lau dokumentu historikorekin aurkeztu ginen. Baiezkoa eman ondoren, errestauratu egin dituzte eta orain berriro Leitzako udaletxera itzuli dira».

Eskolako azken bi solairuak berritzeko ideia

Espainiako Gobernuak iaz E Plana jarri zuen martxan. Udalek herri proiektuak aurkeztu behar zituzten Madrilan, diru-laguntzak jasotzeko.

Madriletik E Planaren bigarren zatia jarri dute orain martxan eta Xabier Zabalo alkatearen esanetan, Leitzako Udalak diru-laguntza eskatzeko asmoa dauka: «Printzipioz hurrengo Udalbatzaren bilkuran aurkeztuko dugu proiektua; Eskolako eraikinak bost solairu ditu, lehen hiruretan klaseak

ematen dira eta azken biak, lehen-go maisuen gelak bezala ezagutzen direnak, berritzea izango litzateke gure helburua, Eskolako getelan bilakatzeko».

Eman beharreko urratsak

Lehenik eta behin bilkuran onartu beharko da proiektua, ondoren Madrilan diru-laguntzaren eskaria egiteko. Onartzen baldin badu, proiektua garatu eta lanean hasiko lirateke; udan, haurrak oporetan aurkitzen direnean.

Guardia Zibilaren aferan erantzunik gabe

Azaroaren 29an guardia zibil bat zauritu zen Leitzako kuartel etxean. Udalak bilkura batean, «behin-goz, gertatua argitzea» eskatu zuen, «eta horrek eragin ditzala eragin beharreko ondorio guztiak». Puntu honetan alderdi guztiak ados agertu ziren, UPNren eta PPren zinegotziak barne.

Xabier Zabalo alkatearen esanetan, oraindik ez dute inongo erantzunik jaso: «Leitzako Udalak ikerketa eskatu zuen ez dakigu deus. Ez da komunikaziorik egondu: zero».

Erantzunik jasotzeko esperantzarik gelditzen zaion galdetuta, erantzuna argia da: «Zero».



Azaroaren 29ko gertaerak argitu gabe jarraitzen dute. JAGOBA MANTEROLA-ARP

«Lau pergaminoak elkarren artean oso desberdinak dira. Garrantzitsua 1475. urtekoa da; latinez eta erromantzez idatzirik dago eta elizaren inguruan hitz egiten du, abade baten aldaketaren inguruan».

Azken hilabeteetan Leitzan bizitu den polemikaren inguruan, elizaren jabetzak direla eta ez direla, pergaminoak eskumenak norenak diren argi uzten omen du: «Eliza herritarren jabetza dela jarritzen du, herriak herritarrentzat sortua».

Zaharberritutako bigarren artxiboa, errota zahar baten inguruko dela aipatu du Zabalok: «ez dakigu egin zen edo ez, baina plano batzuk dira, oso politik gainera».

Hirugarrena, armarriko armen inguruko da eta azkena berri, Leitza eta Ferrol-en (Galizia) arteko hitzarmen bat da, «burdinolen arteko akordio bat».

Batzar Aretoan ikusgai

Artxibo historikoak behin errestauratuta eta berriro udaletxean aurkitzen diren honetan, alkateak eta zinegotziak eurekin zer egiteko asmoa duten azaldu dute: «Originalak oso ongi gordeko ditugu eta kopia digitalak Batzar Aretoan jartzeko asmoa daukagu».

Horrela, jada aretoan aurkitzen den *Nor Jaungoikoa bezala* lelo iraultzaileak, beste lau dokumentu garrantzitsu edukiko ditu ondoan; herri baten historia biziaren altxorra aurkitzeko lagungarri izango diren lau pergamino, hain zuzen ere.

Plazaolako bidean lurzorua konpontzen eta hesiak jartzen ari dira

Plazaolako bidean lurzorua konpontzen ari dira egun hauetan. Aldamenean berriak hesiak jartzen hasi dira. Geltoki zaharra lan hauen lekuko da.

Zabalo eta Barriolaren esanetan, lan hauek burutzeko diru-laguntza ez da Nafarroako Gobernutik iritsi, komunikabide batzuetan azaldu den bezala, proiektu hau Espainiako Ingurumen Ministeriotik bideratu baita.



Plazaolako Geltokiaren ingurunea. A.L.



Erleta eskolako azken bi solairuak berritu nahi ditu Udalak. ASIER IMAZ



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendari: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK

eta Tolosaldeko eta Leizaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketza, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Dedialdia

■ **Tolosa.** Inauterietako haur danborradan kosaka bezala atera nahi dutenek hilaren 16, 23 eta 30ean musika eskolan egingo diren entseguetara azaldu behar dute, 15:30etik 16:30era bitartean. Apeaderoko sarrera erabiltzeko eskatu dute antolatzaileek.

■ **Tolosa.** Inauterietako karroza eta konpartsa lehiaketarako informazioa eta izen-ematea otsailaren 8a arte, www.tolosaldeko hitza.org/inauteriak helbide elektronikoa.

■ **Tolosa.** 2010eko mendi federatu txartela egin daiteke Alpino Uzturre elkarte (Gudari, 5) astelehenean eta asteazkenetan 19:30etik 20:30era hilaren 31a arte. alpinouzturre@hotmail.com helbide elektronikoa bidez ere egin daiteke. Antolatzailea: Alpino Uzturre mendi elkarte.

■ **Tolosa.** Eski irteera antolatu dute Oargik eta Sanblasipikok hilaren 23-24rako Bareges-La Mongieko estazioa, larunbatean 17:30ean ateraz. Autobusa, bi eguneko forfata eta gau bat pensio erdian aterpe batean, 110 euro inguru balio du. Izena emateko, info@oargi.org helbide elektronikoa edo 688 698642 telefono zenbakian (19:00etatik aurrera) esku-ratu daiteke. Antolatzailea: Oargi mendi elkarte eta Sanblasipiko.

■ **Asteasu.** Sagain mendi taldeak Murumendira joateko irteera antolatu du. Irteera igandean, hilak 17, izango da eta izena emateko epea bihar amaituko da. Kiroldegian eman behar da izena. 12 urte-tik beherakoek 5 euro ordaindu beharko dituzte eta 12 urte-tik gorakoek, berriz, 10 euro. Irteera egun erdiko iraupena izango du eta autobusa 08:00etan aterako da Udaletxetik. Buelta 14:30ean izango dela aurrekiri dute antolatzaileek.

Ipuin kontaketa

■ **Tolosa.** Ipuin kontaketa Haur Liburutegian bihar 18:00etan.

Musika

■ **Tolosa.** Capsula taldearen kontzertua Bonberenean ostiralean, hilak 15, 22:30ean.

■ **Tolosa.** Amaia Zubiriaren kontzertua Fronton kafetegian ostiralean, hilak 15, 23:00etan.

■ **Tolosa.** Ama Say taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean larunbatean, hilak 16.

Zinema

■ **Tolosa.** Andrej Wajda zuzendariaren *Katyn* filma bihar Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-klubean.

Antzerkia

■ **Tolosa.** *El Club de las Mujeres Invisibles* antzezina ostiralean, hilak 15, Leidor aretoan 20:30ean.

Erakusketa

■ **Tolosa.** Mikel Azpillaga margolari donostiarraren erakusketa Aranburu Jauregian hilaren 16a arte, 17:30etik 20:30era, jaiegune-tan eta astelehene-tan izan ezik. Antolatzailea: Udal Kultur Batzordea.

■ **Tolosa.** Igor Obesoren beira lanak ikusgai hilaren 31 arte GKO Galleryn (Kale Nagusia) 10:30etik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 65 46 10.

■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia. 112.

■ **Iruztzun.** Gastearena, M. Amaia kalea. 112.

HIZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.



Kaleak auzolana egiteko moduan

LEITZA ■ Alde zaharreko karrketan izotz handia zegoen atzo. Oinez ibiltzea baino ziurragoa zen lurzoru horretara egokitutak dauden patinen gainean ibiltzea. Gatzaren erabilera ingurumenari egiten dion kaltea

ekiditeko, Europako hainbat lekutan bezala, ez zen gatzik bota. Batzuk erabakiaren alde ona ikusiko zuten, besteek txarra. Garai batean bezala, auzolanean gartitzeko aukera ikusi zuenik ere izango zen. A.I.

A Agurrak

agurrak

urtebetetzak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria

egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 /Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31800 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>